

Musika

Iker Goenaga

«Berritzailea izan zaitezke
aldamenean betiko jendea edukita»

Elektronika gutxiagorekin, baina ñabardurekin beti bezain kezkatuta. Hala etorri da Iker Goenaga (Zizurkil, 1974) *...arteraino* disko berriarekin. 2006ko *Amorruaren* lekukoa hartu duen lan honetan, soinuaz gain, musikaria diskoaren fabrikazioaz ere arduratu da, Ez dakienak baleki zigilu propioarekin kaleratu baitu.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkia: Dani Blanco

Inoiz entzun izan dizut momentu onetan ez duzula soinuaren beharrik. Laugarren diskoa duzu *...arteraino*, eta hiru urte joan dira aurrekoa atera zenuenetik. Beheraldi gutxi tarte horretan?

Ez, momentuak dira: egun bateko beheraldia izan dezakezu, edo astebetekoa; eta ez zortzi hilabeteko depresio bat! Gainera, kanta guztiak ez dira egoera txarrean egindakoak... baina gehienak bai. Horrek bultzatzen nau sortzera.

Autoekoizpenaren bidea hartu duzu. Esprikatuko nolakoa den diskoaren prozesu guztia norberak eraman behar hori?

La urtebete pasa dugu nola argitaratu erabakitzen; grabatzen ere martxorako bukatu genuen, eta erabaki genuen irailera atzeratzea. Eskaintza bat bageneukan, baina baloratu ondoren erabaki genuen autoprodukzioa egitea. Niretzat dena berria zen: ez zen hartu eta, "orain hamabost egun dauzkat, grabatuko dut dena, eta argitaratuko dugu hemendik bi hilabetera". Askoz konplikatuagoa izan da.

Baina, hala ere, autoekoiztea erabaki. Zergatik?

Beste alternatiba hoberik ez dudalako ikusi. Aurrekoak beti Elkarrekin atera ditut, eta orain ere eskaintza baneukan. Pasatzen dena da, musikaren mundua asko aldatu dela hiru urtean. Baina, asko diodanean da, asssko. Elkarren egoera orain dela hiru urte ez zen ona, baina orain askoz ere okerragoa da eta ez dago prest apustuak... Bueno, nirekin ez zuen sekulako apustua egiten, baina aukera ematen zidan grabatzeko, estudioan nik nahi adina denbora egoteko eta gauzak lasai egiteko. Eta hori, normala den bezala, estutzen joan da. Beraz, taldekide batek estudioa daukanez, gauzak lasaiago egiteko modua ikusi nuen.

Kaskoak jantzita entzuteko diskoa iruditzen zait, ñabardura asko antzematen zaizkio. Lasaitasun horren ondorioetako bat da agian?

Pozten naiz hori entzuteaz, produkzioa nik egin baitut! Baina nik uste aurreko diskoan ere antzekoa zela. Egia da beste bide batetik

jo genuela: elektronika gehiago sartu genuen, Angel Unzu zegoen produkzio arduradun... Hor asko ikasi nuen: Angeli kanta bat ematen nion, ideia bat, eta berak forma ematen zion; gero biak elkartu eta ikuspuntuak bateratzen saiatzen ginen. Diferentzia da Angel Unzuk jotzen dituela gitarra akustikoa, elektrikoa, perkusioa, kantatzen du, baxu elektrikoa... Nik berriz panderoa, soinua eta teklatura. Beraz, imajinazioa gehiago landu behar dut, gitarra-joleari esan ahal izateko, "hau horrela egitea pentsatu dut".

Taldearekin estuago lan egitea ekarriko zizun horrek...

Bai: tronpeta-jolearengana joan, eta tonua transportatzen ibili gara —si bemolen daukate beraiek—; txeloekin berdin, ez delako sol-eko klabea idazten.



Esaten nien: “Nik soleko klabea idatziko dizut, horrela eta horrela egitea nahi dut...”. Grabaketarekin hasi aurretik bilera batzuekin genituen, erabakitzeke autoprodukzioarena, moldaketak nola egin... Taldekideek argi ikusten zuten arduradun bat egon behar zela. Ezin genuela bakoitzak kanta bat etxera eraman eta nahi genuena egin. Esan genuen: “Ez, norbaitek ideia bat ekarri behar du, eta hori landuko dugu; baina egon behar da zerbait konkretua”. Unzurekin hitz egin nuen, baina oso lanpetuta zebilen. “Zuk egin behar duzu” esan zidan. Eta azkenean hartu nuen. Pozten naiz.

Bi kanta mota desberdinduko nituzke diskoan: ahotso daukatenak eta instrumentalak. Bigarren horietan garapena bilatu duzula ematen du. Konposizio aldetik lan handia eskatu dizute?

Konposizioa baino gehiago, begiratzea eskatu dit: kanta batean instrumentu batek ez duela zertan gauza bera egin hasieratik bukaerara. Bilatu behar duzu, parte bera hiru aldiz azaltzen bada, zer erantsi lehenengoaren desberdina izan dadin. Unzuk esaten zidan: “Problema handiena da, Iker, norberak bere kantei hori egin behar dienean”. Ze, zuk sortu duzu. Ez zara objektiboa. Aldamenekoaren semeak gaizki egiten duenean errazago ikusten duzu, baina zurea denean... Beldurra ematen zidan hori nik egin beharrak. Baina hori da, azkenean: kantak A, B eta C parteak baldin badauzka, B eta C bi aldiz eta A hiru aldiz... “Zer egin behar diot nik honi hiru garren aldian nekagarria izan ez dadin?”. Eta horretan saiatu naiz.

Joseba Sarrionandia, Koldo Izagirre eta Garxot Unsain daude hitzen egileen artean. Klasi-koak dira honezkero zure diskoetan.

Nire lagunekin oso fidela naiz. Gustatzen zait, ez dakit, uste dut berritzea badagoela aldamenean pertsona berak edukita. Taldekideak ere betikoak ditut, eta ni seguru sentitzen naiz. Orain dela gutxi *Entzun!* aldizkari-rako elkarrizketa batean esan zidaten: “Pasa duzu elkarrizketa guztia inguruan dituzunei eskerrak ematen. Zer, Iker Goenaga ez da nor bera bakarrik edo?”. Noski, gizaki guztiak gara nor, baina denok daukagu ingurune baten beharra. Nik behar dut, bai letragileen aldetik, bai musikariaren aldetik... Babes hori oso inportantea da. Eta, noski, horrez guztiaz gain, beraien lana asko gustatzen zait.

Errazkin kanta eskaini diozu Mikel Errazkin zenari. Zer izan zen zuretzat?

Hemeretzi urterekin ezagutu nuen. Sorotan Belek maketa besterik ez zeukan, diskorik ere ez artean. Bera ezagutzeko aukera izan nuen, harreman ona sortu zen, eta Sorotan-en aurreneko diskoan grabatu nuen; zuzeneko batzuetan ere parte hartu nuen... Gero, bera bakarkako proiektuetan hasi zenean, beti deitzen zidan eta bere disko askotan parte hartu nuen. Pertsona bezala ere, harreman handia nuen. Bizitasun handia zuen, jenio handia, eta gauzak oso garbi zeuzkan. Eduki zituen gaixotasun eta gauza guztien gainetik ikasi zuen egokitzen: Sorotan Belen txirularekin eszenatokian saltoka ibiltzen zena izatetik, pasa zen hori guztia utzi, eta teklatura jotzen hastera; gero estudioa muntatu etxean, grabatzen ikasi, kantak sortzen gehiago saiatu, moldaketak... Bukaeran ere oso gaizki zegoen, eta hala ere, kristoren energia zeukan.

Irailaren erdialdean hasi behar genuen entseatzeko disko hau grabatzeko; irailaren 1ean hil zen Xabier Portugal, Antxoko nire lagun bat; hilaren 5ean berriz, Mikel Errazkin. Eta bi kanta berri sartzea erabaki genuen: *Errazkin* eta *Antxoko Portugal*. ■

“la urtebete pasa dugu diskoa nola argitaratu erabakitzen; eskaintza bat bageneukan, baina baloratu ondoren erabaki genuen autoprodukzioa egitea”



AMAGOIA i ETXEKAR

Dendaldegi 7 • URNIETA (Gipuzkoa)

La Bretxa Merkatal Gunea
1. solairua, B 04 lokala (ostirala-larunbata)
DONOSTIA (Gipuzkoa)

www.amagoiaietxekar.com
www.boutiqueaie.com

Tel. 943 336170 • 677 202122